Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2025-11-25
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2025-12-04
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00118/2025 - Data/Fecha: 2025-12-04
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-12-04
GZko 11.gaia onartuta - Aprobado, asunto 11) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA,** foru-dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Foru-dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2026ko ekitaldian euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten badituzte.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat helburu ezarri ditu, eta helburu horietako bat da euskararen erabilera gizarte-eremu guztietan sustatzea. Ahalegin honetan, hain zuzen, behar-beharrezkotzat jotzen da gizartean bertan eragitea; izan ere, gizartea da euskara garatu behar den gune naturala. Baina, besteak beste, gure hizkuntza sustatu, zabaldu eta normalizatzeko proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko entitateetan ere eragin behar da bereziki.

Horretarako, urtero dirulaguntza-lerro bat izaten du irabazi asmorik gabeko entitateei laguntza emateko euskararen erabilera sustatzeko funtsezko lanean.

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia,** por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a personas jurídicas sin ánimo de lucro que realicen actividades para la promoción, difusión o normalización del uso del euskera durante el ejercicio 2026.

La Diputación Foral de Bizkaia se ha marcado diversos objetivos, entre ellos promocionar el uso del euskera en todos los ámbitos sociales. Precisamente, en este esfuerzo se estima imprescindible incidir en la propia sociedad, puesto que ella constituye el espacio natural donde debe desarrollarse el euskera, y especialmente, entre otros agentes, en las entidades sin ánimo de lucro que realizan proyectos para la promoción, difusión y normalización de nuestro idioma.

Para ello, cuenta anualmente con una línea de subvención que tiene por objeto colaborar con estas entidades sin ánimo de lucro, con el fin de apoyarlas en su labor fundamental en el ámbito de la promoción del uso del euskera.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarritzen da proposatzen den xedapen orokor honi dagokion eskumena; izan ere, lege horrek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten du euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta se fundamenta en la Ley del Parlamento Vasco 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, que confía a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma Vasca la adopción de las medidas encaminadas a asegurar el desarrollo y normalización del uso del euskera.

Hortaz, 26. artikuluak xedatzen du euskal herri-aginteek neurri egokiak hartuko dituztela eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroletako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Así, dispone en su artículo 26 que los poderes públicos vascos deberán tomar las medidas oportunas y poner los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: euskara sustatzea eta txertatzea gizartearen alor guztietan; hala, osatu egiten da foru-dirulaguntzetarako deialdi honen esparru juridikoa.

El Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, atribuye a este Departamento la competencia para la promoción y fijación del euskera en todos los ámbitos de la sociedad, completando de este modo el marco jurídico de la presente convocatoria de subvenciones forales.

Halaber, dekretu honen izapidetzean printzipio hauekin bat jarduten da: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea. Izan ere, hala ezartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluak (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluak, non printzipio horiek modu orokorrean ezartzen diren. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan

Asimismo, en la tramitación de este decreto se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezarritakoa betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Txosten Juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari Buruzko Txostena.

4. Kontrol Ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de Control Económico.

5. Informe de Legalidad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.k) artikuluak ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 41.1 artikuluak aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru-dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

2026ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak emango dizkien foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de Decreto Foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se concedan por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a personas jurídicas sin ánimo de lucro que realicen actividades para la promoción, difusión o normalización del uso del euskera en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## Azken xedapenak

Lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatua, foru-dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

## Disposiciones finales

Primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatua / La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2026KO EKITALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU, ZABALDU EDO NORMALIZATZEKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO PERTSONA JURIDIKOEI ALDUNDIAK EMANGO DIZKIEN FORU-DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES FORALES DESTINADAS A PERSONAS JURÍDICAS SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE REALICEN ACTIVIDADES PARA LA PROMOCIÓN, DIFUSIÓN O NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DURANTE EL EJERCICIO 2026.

## I. KAPITULUA

## Xedapen orokorrak

## CAPÍTULO I

## Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Foru-dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso dezakete Bizkaiko Lurralde Historikoan burutu beharreko proiektu eta jarduera hauek:

a) Eremu ez-formaletan euskararen erabilera sustatu eta finkatzeko ekimenak edo ekintza-egitarauak, batez ere umeentzat eta gazteentzat astialdian, eduki digitalekin lotuta (gazteak ikus-entzunezko eduki digital sortzaile bihurtzeko xedearekin) edo kirolarekin lotuta, egiten direnak, baita jarduera horiek gauzatzeko materialen sorrera ere.

b) Lan-munduan euskararen erabilera sustatu eta finkatzeko ekimenak edo ekintza-egitarauak.

c) Etorkinei euskara hurbiltzeko aukera ematen duten programak, baita etorkinen euskara-gaitasuna lantzeko programak ere.

d) Beste programa edo proiektu batzuk: euskararen familia barruko transmisioa sendotzeko direnak; gizarte-harremanetan euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko egiten direnak; irakurtzeko ohitura sustatzeko programak; begiraleen hizkuntza-prestakuntza lantzekoak;

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Los proyectos y actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral, que deberán realizarse en el Territorio Histórico de Bizkaia, son los siguientes:

a) Iniciativas o programas de acción destinados a promocionar y consolidar el uso del euskera en ámbitos no formales, en especial los que se desarrollen en el tiempo libre, los ligados a contenidos digitales (con el fin de convertir a los y las jóvenes en creadores y creadoras de contenidos audiovisuales digitales) y los ligados a actividades deportivas destinados al público infantil y juvenil, así como la creación de materiales para llevar a cabo las mismas.

b) Iniciativas o programas de acción destinados a promocionar y consolidar el uso del euskera en el mundo laboral.

c) Programas que posibiliten el acercamiento al euskera de la población inmigrante, así como los destinados a la capacitación lingüística de dicha población.

d) Otros programas o proyectos: aquellos cuyo objeto sea la consolidación de la transmisión del euskera en el ámbito familiar, los destinados a promover y fortalecer el uso del euskera en las relaciones sociales, programas que tengan por objeto incentivar el hábito de la lectura, los destinados a la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

materiala sortzekoak; tokian tokiko aldizkako argitalpenak sortzekoak; euskararekin, euskararen historiarekin edo hainbat eremutan euskararen garapenean protagonista izan diren pertsonaiekin zerikusia duten ospakizunak, eta abar.

formación lingüística de monitores y monitoras, creación de material, creación de publicaciones periódicas locales, actividades dirigidas a la celebración de efemérides relacionadas con el euskera, con la historia de la lengua o con aquellos personajes que han sido protagonistas relevantes en su desarrollo en diferentes aspectos, etc.

e) Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartearen barruan erabili ahal izateko (kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.). Egitarauok aintzat hartzeko, nahitaezkoa izango da horiek guztiek Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren aldeko txostena izatea, eta eskatzaileek eurek ekarri beharko dute.

e) Otrosí, los programas destinados a recopilar, salvaguardar y recuperar para su uso social el patrimonio del euskera local (canciones, versos, dialectos, etc.). Para que estos programas sean tomados en cuenta, será preciso que ellos cuenten con informe favorable de Euskaltzaindia o del Instituto Labayru, recabada por la entidad solicitante.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza jasotzen duten proiektuek ez dute hizkera sexistarik erabiliko, garatzen ari diren bitartean, ez zuzenean, ez beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).

De conformidad con el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, los proyectos subvencionados deberán hacer un uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) a lo largo de su desarrollo, en los documentos y soportes que produzcan directamente o a través de terceras personas o entidades.

Dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2026ko ekitaldiaren barruan burutu beharko dira.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2026.

2. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira hauek:

2. Quedarán excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Hizkuntzak irakasteko egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan % 50 edo gehiago duten udalerrietan, Eustat-ek argitaratutako indarreko estatistikan oinarrituta, eta Eusko Jaurlaritzak egindako azkeneko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera.

a) Los programas y acciones dirigidos a la enseñanza de idiomas, en aquellos municipios con una población euskaldun del 50 % o superior, con base en la estadística vigente publicada por el Eustat, y basada en los datos de la última Encuesta Sociolingüística del Gobierno Vasco.

b) Aisialdirako eta astialdirako egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan % 70 edo

b) Los programas y acciones dirigidos a la ocupación del ocio y tiempo libre, en aquellos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gehiago duten udalerrietan, Eustat-ek argitaratutako indarreko estatistikan oinarrituta, eta Eusko Jaurlaritzak egindako azkeneko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera.

c) Gizarte babeseko edukia duten egitarau eta ekintzak, biztanle euskaldunetan % 50 edo gehiago duten udalerrietan Eustat-ek argitaratutako indarreko estatistikan oinarrituta, eta Eusko Jaurlaritzak egindako azkeneko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera.

d) Edozein motatako diskriminazioa eragiten duten jarduerak edo proiektuak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

e) Jai egitarauak, herriko jaien inguruko antolakizunak edota urtero ospatzen diren jaien ingurukoak.

f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta teknologia berrien arloko proiektuak, besteak beste, hauek sortzea: jokoak, aplikazioak, webguneak, bideoak hedatzeko programak, bideo jokoak, jolasak, jostailu didaktikoak eta antzekoak, softwarea, etab.

g) Bizkaiko Foru Aldundiko dirulaguntza izenduna duten egitarauak.

h) AROAk, Eusko Jaurlaritzaren Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoak, ezarritako ardatz estrategikoekin, erronkekin, lan-ildoekin eta ekimenekin bat ez datozen proiektuak.

i) Irratiak.

j) Tokian tokiko lurreko telebista digitalak.

k) Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenaren babesean, edozein administrazioren dirulaguntza jaso

municipios con una población euskaldun del 70 % o superior, con base en la estadística vigente publicada por el Eustat, y basada en los datos de la última Encuesta Sociolingüística del Gobierno Vasco.

c) Los programas y acciones de contenido asistencial, en aquellos municipios con una población euskaldun del 50 % o superior, con base en la estadística vigente publicada por el Eustat, y basada en los datos de la última Encuesta Sociolingüística del Gobierno Vasco.

d) Aquellas actividades o proyectos que incurran en discriminación de cualquier clase, de acuerdo con lo establecido en normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

e) Los programas festivos o ligados exclusivamente a las fiestas populares o a la celebración de festividades anuales.

f) Los proyectos en materia de tecnologías de la información y de la comunicación y del ámbito de las nuevas tecnologías en general, tales como creación de juegos, aplicaciones, páginas web, programas de difusión de vídeos, videojuegos, juguetes, juguetes didácticos y similares, software, etc.

g) Los programas objeto de subvención nominativa de la Diputación Foral de Bizkaia.

h) Los proyectos que no se ajusten a los ejes estratégicos, retos, líneas de trabajo e iniciativas establecidos por AROA, Marco estratégico del Gobierno Vasco para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes.

i) Las radios.

j) Las televisiones digitales terrestres locales.

k) Los proyectos subvencionables por cualquiera de las Administraciones al amparo del Convenio suscrito entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dezaketen proiektuak. Euskara hutsez dihardunten hedabideen etorkizuneko ekintza-lerroa ziurtatzeko sinatu zen hitzarmen hori.

Diputación Foral de Bizkaia, para asegurar la línea de acción futura en favor de los medios de comunicación íntegramente en euskera.

l) Metodologia jakin bat antolaketa-arlo edo arlo geografiko desberdinetara egokitzea besterik ez dakarten proiektuak, betiere entitateak aurretik dirulaguntza jaso badu antzeko izaera duten proiektuetarako deialdiren batean.

l) Los proyectos que supongan la mera adaptación de una determinada metodología en diferentes ámbitos organizativos o geográficos, siempre que la entidad ya hubiera recibido subvención en anteriores convocatorias para proyectos de similar naturaleza.

m) Internet bidez zabaltzen diren proiektuak, baldin eta ez badute bermatzen gutxienez ere hiru urtean edozein pertsonak modu seguruan eta anonimoan eskura dezakeela zuzenean webean jarritako edukia. Eduki hori hilean behin eguneratu beharko da gutxienez ere, eta egiaztatutako kalitate teknikoaren irizpideetara egokitu behako dute web-ostatatzeak, euskarriaren egiturak eta edukiak berak.

m) Los proyectos cuya difusión tenga lugar a través de Internet y que no garanticen que el contenido depositado en la web sea directamente accesible a cualquier persona, de forma anónima y segura, por lo menos durante 3 años. Este contenido deberá renovarse con una periodicidad mínima mensual, y tanto el alojamiento web, como la estructura de soporte y el propio contenido desarrollado deberá adecuarse a criterios de calidad técnica acreditada.

n) Euskara zeharka tratatzen dituzten proiektuak. Ildo horretan, proiektuaren ardatz nagusia euskararen sustapena izan behar da ezinbestez, eta proiektua garatzeko aurreikusten diren ekintzak helburu horretara bideratu behar dira funtsean; areago, proiektuaren gastuen aurrekontuan ezin izango dira sartu beste helburu batzuei lotutako zenbatekoak. Horiek horrela, aurkeztutako proiektuan euskararen sustapenari lotutako zatia besterik ez da aintzat hartuko: proiektua beste proiektu handiago baten zatia bada, onuradunak euskararen sustapenaren ikuspuntutik aurkeztu beharko du, eta proiektua diseinatzeko jasotako jarduerak (aurrekontuan sartuko direnak), beraz, euskararen sustapenari lotutakoak baino ezin dira izan. Hala egiten ez bada, proiektua deialditik kanpo geratuko bere osotasunean.

n) Los proyectos que contemplen al euskera de forma meramente transversal. En este sentido, la promoción del euskera deberá ser el eje fundamental del proyecto, y las acciones previstas para su desarrollo deberán estar orientadas fundamentalmente a tal objetivo, no pudiendo, además, formar parte del presupuesto de gasto del proyecto los importes ligados a otros fines. De esta manera, el proyecto presentado habrá de referirse únicamente a la parte vinculada a la promoción del euskera, y planteado desde tal enfoque: si el proyecto formara parte de un proyecto de mayor alcance, la beneficiaria habrá de enfocarlo desde la perspectiva de promoción del euskera, y diseñarlo de tal forma que las actividades recogidas (y presupuestadas) en el mismo se refieran solamente a la parte relativa a la promoción del euskera. En caso contrario, el proyecto quedará completamente excluido de la convocatoria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

o) Eduki korporatiboak (entitateen web-orriak, eta abar) edo eduki koiunturalak (berriak, buletinak, eta abar) euskaratzeko diren proiektuak; horrez gainera, beste hizkuntza batzuetan sortutako bideoak azpititulatzeko proiektuak edo euskararen sustapenari lotuta ez dauden ekitaldietan euskarara aldi bereko itzulpena egiteko direnak.

o) Los proyectos que consistan en la mera traducción al euskera de contenidos corporativos (páginas web de entidades, etc.) o coyunturales (noticias, boletines, etc.), así como la subtitulación de vídeos creados en otros idiomas y la traducción simultánea al euskera en eventos no ligados con la promoción del euskera.

3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

3. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Entitate batek foru-dekretu honen babesean diruz lagundutako proiektu edo jardueraren bat egiten badu eta proiektu edo jarduera horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurralde-eremua gainditzen badu, Bizkaian eginiko proiektu edo jardueraren garapenari dagozkion gastuak soilik izango dira diruz laguntzekoak.

Si una entidad desarrolla alguno de los proyectos y actividades subvencionables bajo el presente decreto foral, cuyo ámbito territorial excediera del Territorio Histórico de Bizkaia, solamente se considerarán gastos subvencionables aquellos imputables al desarrollo del proyecto en Bizkaia.

4. Ez dira diruz lagunduko edozein proiektu garatu aurreko faseei edo proiektuaren aurreprodukzioari dagozkien gastuak, ez eta jarduerari buruzko plangintza edo hausnarketa egiteko gastuak ere (izan ere, jarduera ondo zehaztuta eta programatuta egon beharko da, eta hala jasoko da proiektuaren memorian).

4. No se considerarán gastos subvencionables las fases previas al desarrollo de cualquier proyecto, su preproducción, o aquellas que consistan en la planificación o reflexión en torno al desarrollo de la propia actividad (que ya deberá estar perfectamente delimitada y programada, y así reflejarse en la memoria del proyecto).

Era berean, ez dira diruz lagunduko diagnostikoak egiteko gastuak, edo proiektuan parte hartzeko interesa izan dezaketen agenteak bilatzeko direnak. Proiektua garatzeko faseen artean, besteak beste, aurreikusten bada diagnostiko bat edo antzeko izaera duen beste ekintza bat egin behar dela (aurreprodukzioa, gogoeta estrategikoa, parte hartuko duten agenteen bilaketa, eta abar), aurrekontuan zehaztasunez jaso beharko da fase hori; izan

Tampoco se considerarán subvencionables los gastos referidos a la elaboración de diagnósticos, o a la búsqueda de otros agentes que pudieran tener interés en participar en el proyecto. Los proyectos que contemplen, entre otras fases para su desarrollo, la realización de algún diagnóstico o medida de igual o similar naturaleza (preproducción, reflexión estratégica, búsqueda de agentes participantes, etc.) deberán presupuestar

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ere, dagokion gastua ondo araztuko da, ez baita diruz laguntzeko gastutzat hartuko. Hala egiten ez bada, proiektua deialditik kanpo geratuko bere osotasunean.

exactamente esa fase, a fin de que pueda depurarse el citado gasto por no considerarse subvencionable. En caso contrario, el proyecto quedará completamente excluido de la convocatoria.

Honako hauek ere ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Tampoco tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes:

a) Ekipo-ondasunak erostearen ondoriozkoak, salbu eta foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epean ondasun horiek direla-eta amortizatu behar den zatia, betiere aplikatzekoa den kontabilitate-araudiaren arabera.

a) La adquisición de bienes de equipo, salvo por la parte cuya amortización corresponda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral, de conformidad con la normativa contable aplicable.

b) Banku-kontuetako interes zordunak.

b) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

c) Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

d) Prozedura judizialen gastuak.

d) Gastos de procedimientos judiciales.

e) Zeharkako zergak (besteak beste, BEZa) ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean dagoen aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan. Era berean, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko errentaren gaineko zerga pertsonalak.

e) Los tributos indirectos (y, entre ellos, el IVA) no se considerarán gasto subvencionable cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En tal caso, tanto en el presupuesto que figure en la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA. De igual manera, tampoco resultarán gasto subvencionable los impuestos personales sobre la renta.

f) Oro har, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

f) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

5. Foru-dekretu honen helburua entitate eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

2. oinarria. *Entitate onuradunak.*

Base 2. *Entidades beneficiarias.*

1. Dirulaguntzaren xede den jarduera egiteko asmoa duten Bizkaiko Lurralde Historiko irabazi-asmorik gabeko pertsona

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral las personas jurídicas sin ánimo de lucro del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

juridikoak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta onuradun ez izateko 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ere ez badaude, eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Dagokien Erregistroan izena emanda egotea.

c) Aurrekontu araztu osoaren gutxieneko autofinantzaketa, eskatutako dirulaguntzak xedetzat duen programa edo proiektuari dagokionez:

1) Merkaturatzeko asmoz egiten diren ekoizkinak gauzatzeko proiektuak direnean: % 45.

2) Gainerako proiektuetan: % 35.

Autofinantzaketa izango da, aurrez ikusitako sarrera guztien batura, proiekturako aurrez ikusitako dirulaguntza publikoetatik datozenak eta deialdi honetan eskatutako zenbatekoa kontuan izan gabe.

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira ondarean administrazio edo fundazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten entitateak, partzuergoak, unibertsitate publikoak, banku-fundazioak, eta patronatuan, ordezkaritza-organoan edo zuzendaritza-organoan administrazio publikoetako ordezkariak dituzten fundazioak edo entitateak (dagokion administrazioa ordezteko betetzen dutenean kargu hori).

Era berean, fundazioei aplikagarri zaien araudiaren arabera, ezin dira dirulaguntzen

Territorio Histórico de Bizkaia que hayan previsto realizar la actividad que fundamenta el otorgamiento de la subvención que, no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reúnen los siguientes requisitos:

a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse inscritas en el Registro correspondiente.

c) Autofinanciación mínima del presupuesto global depurado, respecto al programa o proyecto para el que se solicita la subvención:

1.º Del 45 %, en el caso de proyectos para la realización de productos destinados a su comercialización.

2.º En el resto de proyectos, del 35 %.

La autofinanciación será la suma de todos los ingresos previstos, salvo los procedentes de las subvenciones públicas previstas para el proyecto y la cantidad solicitada en la presente convocatoria.

Los requisitos deben de acreditarse el día que finalice el plazo de presentación de las solicitudes. Asimismo, deberán mantenerse todos ellos durante todo el procedimiento hasta el momento de la entrega de la justificación de la subvención.

2. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral las entidades en cuyo patrimonio exista participación de una o de varias administraciones o fundaciones públicas, los consorcios, las universidades públicas, las fundaciones bancarias, y aquellas fundaciones o entidades en cuyo patronato u órgano de representación o dirección existan miembros de la Administración Pública que ocupen su cargo en representación de la misma.

De igual manera, y conforme a la regulación aplicable a las fundaciones, no podrán recibir

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

onuradun izan urteko kontuak aurkeztu ez dituzten fundazioak, erregistroko itxiera ezarri zaienean. Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatuko du hala gertatzen den, dagokion erregistroan kontsulta eginda.

subvención aquellas que no hubieran entregado sus cuentas anuales, y sobre las que se hubiera determinado su cierre registral, lo cual comprobará el servicio gestor a través de la consulta en el registro correspondiente.

3. Horrez gainera, pertsona juridikoek ezin dezakete dirulaguntza hauen deialdian parte hartu eta ezin daitezke onuradun izan baldin eta:

3. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas jurídicas:

a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

a) Que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

b) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.

c) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.

d) Que no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

## II. KAPITULUA

### Araubide juridikoa

## CAPÍTULO II

### Régimen jurídico

3. oinarria. *Araudi aplikagarria.*

Base 3. *Normativa aplicable.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduko IV. tituluan xedatutakoa ere.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de la misma.

III. KAPITULUA

CAPÍTULO III

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Prozedura

Procedimiento

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 12an hasiko da eta 2026ko otsailaren 9ko 13:30ean amaituko da.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat:

https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Eskabide bakoitzak proiektu bakarrari buruzkoa izan behar da, hau da, zenbat proiektu lagundu nahi diren hainbat eskabide aurkeztu beharko dira.

Pertsona batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren programen kasuan, aurrekontuan zehaztu beharko da zer ekarpen egiten duen pertsona bakoitzak eta zer gastu dagokion bakoitzari; eskabidea, nolanahi ere, pertsona horietako batek bakarrik egingo du, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 10.3 artikuluan

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes*.

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

2. El plazo de presentación de solicitudes será desde el 12 de enero de 2026 hasta el 9 de febrero de 2026 a las 13:30.

Base 6. *Documentación a adjuntar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

Cada solicitud deberá responder a un único proyecto, es decir, se presentarán tantas solicitudes como proyectos pretendan ser subvencionados.

En el caso de los programas cuya realización corra a cargo de diferentes personas jurídicas en colaboración, se deberá especificar en el presupuesto la aportación y los gastos correspondientes a cada persona jurídica, si bien la solicitud la deberá realizar una sola de ellas, de conformidad con lo establecido en el artículo 10.3 de la Norma

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, eskabide horiek ezetsi egingo dira.

Foral 5/2005, de 31 de mayo. De no proceder así, se desestimarán dichas solicitudes.

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Entitate eskatzailearen estatutuak edo eraketa-eskriturak.

a) Los estatutos o escrituras de constitución de la entidad solicitante.

b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

b) Certificado de estar inscrito en el Registro correspondiente.

Aurreko letretan aipatutako dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

No se aportará la documentación indicada en los apartados anteriores en caso de haber sido presentada con anterioridad, y siempre que no hubiera sufrido modificación alguna durante los últimos tres años.

c) Jarduera-proiektua azaltzeko memoria, gehienez ere 20 orrikoa, ezinbestez hauek jasoko dituena:

c) Memoria explicativa del proyecto de actividades, que no excederá de 20 páginas, y que deberá necesariamente incluir:

1º Proiektuaren ezaugarri orokorrak.

1.º Las características generales del proyecto.

2º Hartzaile potentzialak.

2.º Destinatarias potenciales.

3º Aurrez ikusitako helburu eta ekintzak, proposatzen den aurrekontuarekiko proportzionalak direnak eta kontzeptualki harekin bat datozenak.

3.º Objetivos y acciones específicas previstas, que guarden proporción y concordancia conceptual con el presupuesto que se proponga.

4º Proiektua egiteko aurrez ikusten diren egunak eta lekuak.

4.º Fechas previstas y lugares de realización del proyecto.

5º Proiektua egiteko eta banaketa egiteko baliabide teknikoen deskribapena.

5.º Descripción de medios técnicos para su elaboración y distribución.

6ºAlderdi metodologikoak, baldin eta 1. oinarriko 2.l) apartatuko proiektu mota bada.

6.º Consideraciones metodológicas en caso de suponer el tipo de proyecto contemplado en la base 1, apartado 2.l).

7º Zabalkundea, baldin eta 1. oinarriko 2.m) apartatuko proiektu mota bada.

7.º Difusión, en caso de suponer el tipo de proyecto contemplado en la base 1, apartado 2.m).

8º Foru-dekretu honen 10. oinarriaren 1.f) apartatuko irizpidea baloratzeko, proiektuan lanpostu kualifikatuetan edo erantzukizuna

8.º A los efectos de la valoración del criterio de la base 10 apartado 1.f) de este decreto foral, número de mujeres que ocuparán

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dakartenetan jardungo duten emakumeen kopurua.

9º Foru-dekretu honen 10. oinarriaren 1.g) apartatuko irizpidea baloratzeko, entitate eskatzaileak emakume eta gizonen berdintasunerako politikak edo jarduketak egiten duen ibilbidearen azalpena.

10º Erakunde eskatzaileak uste badu organo kudeatzailearentzat lagungarria dela egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera bete behar den aurrekontuko partidak zehaztea, proiektua egiteko ekintzak garatzeko aurrez ikusitako aurrekontua sartuko du memorian (sarrerak eta gastuak orekatuta agertu behar dira aurrekontu horretan).

Proiektuaren memorian garbi adieraziko da zer jarduera egin nahi diren, zer lekutan eta zer pertsonak edo entitatek hartu duten proiektuan parte hartzeko konpromisoa; orobat adieraziko da proiektua non eta noiz gauzatu, ikusi edo publikoki erakutsiko den. Ez dira diruz lagunduko asmo hutsezko edukiak, edo alderdi hauek zehatasunez adierazten ez dituztenak: zer jarduera garatuko diren jarduerak, zer bitarteko espezifiko behar den jarduerok gauzatzeko, eta zer kostu egotzi dakiokeen eta jarduera horietako bakoitzari.

d) 1. oinarriaren 1. zenbakiaren e) letran aipatzen direnen kasuetan (Tokian tokiko euskararen ondarea jaso, zaindu eta berreskuratu nahi duten egitarauak, ondare hori gizartean erabili ahal izateko —kantuak, bertsoak, euskalkiak etab.—), Euskaltzaindiaren edo Labayru Ikastegiaren txostena, eskatzaileek eurek ekarri beharrekoa.

e) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Eskabidea legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuko du, eta, egoitzan

puestos cualificados o de responsabilidad en la ejecución del proyecto.

9.º A los efectos de la valoración del criterio de la base 10 apartado 1.g) de este decreto foral, trayectoria de la entidad solicitante en el desarrollo de las políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres.

10.º En caso de que la entidad solicitante considere de ayuda para el órgano gestor concretar las partidas del presupuesto que ha de rellenarse conforme al modelo habilitado en sede, deberá entonces incluirse en la memoria el presupuesto previsto, equilibrado entre ingresos y gastos, para el desarrollo de las acciones previstas del proyecto.

El proyecto deberá expresar claramente en la memoria qué actividades se desean desarrollar, en qué lugares, y qué personas o entidades han comprometido su participación, así como las fechas y lugares para su celebración, visualización o exposición pública. No se considerarán subvencionables los contenidos meramente intencionales, o que no especifiquen con concreción qué acciones se desarrollarán, qué recursos específicos serán necesarios para completarlas, y cuál el coste imputable para el desarrollo de cada una de ellas.

d) En los casos de la letra e) del apartado 1 de la base 1 («programas destinados a recopilar, salvaguardar y recuperar para su uso social el patrimonio del euskera local -canciones, versos, dialectos, etc.-»), el informe de Euskaltzaindia o el Instituto Labayru, recabado por la entidad solicitante.

e) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. La solicitud irá firmada por aquella persona con capacidad legal, que deberá

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko du:

a) Proiektuaren sarrera eta gastuen aurrekontu xehekatua, non autofinantzaketa maila ere zehaztuko den; aurrekontu hori bat etorri behar da Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoan agertzen den eredu betegarriarekin.

b) Kasuan kasuko egitaraua aukeratzea, foru-dekretu honen 1. oinarriaren 1. zenbakiaren a) eta e) arteko letretan ezarritako sailkapenaren arabera.

c) Zer jarduera mota egingo den:

1) Berezia (HAKOBA, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak nahiz Bizkaiko Euskara Bizia batzordeak iradokitako lehentasunezko ekintzak eta egitasmoak: kirola eta euskara; hizkuntza-ohiturak euskarara aldatzeko jarduerak edo ariketa sozialak; etorkinei zuzenduak; lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektuak; desgaitasuna duten pertsonekin egindakoak…).

2) Gazteentzako jarduera.

3) Umeentzako jarduera.

4) Tokian tokiko euskararen ondarea.

5) Edonorentzako jarduera.

d) Proiektuari eskainitako dedikazioa, aurrez ikusitakoa: proiektua aurrera eramaten ziur aski parte hartuko duten pertsonen kopurua eta bakoitzak izango duen ordu-dedikazio, kalkulatutakoa.

e) Autofinantzaketaren portzentajea: portzentaje bat da, aurrez ikusitako sarrera guztien batura (proiekturako aurrez ikusitako dirulaguntza publikoetatik datozenak eta deialdi honetan eskatutako

cumplimentar, según modelo disponible en sede, lo siguiente:

a) Un presupuesto detallado de ingresos y gastos, incluyendo el nivel de autofinanciación del proyecto, conforme al modelo específico disponible para su cumplimentación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Elección del tipo de programa de que se trata, según la clasificación establecida por los apartados a) a e) del apartado 1 de la base 1 del presente decreto foral.

c) Tipo de actividad de que se trata:

1.º Específica (acciones y proyectos señalados como prioritarios por la Comisión de Coordinación de las Administraciones Públicas, HAKOBA, y/o por la Comisión Euskara Bizia de Bizkaia: euskera y deporte, actuaciones o ejercicios sociales para el cambio de hábitos lingüísticos en favor del euskera, actividades dirigidas a la población inmigrante, proyectos dirigidos al incremento del uso del euskera en el mundo laboral, los relacionados con personas con discapacidad…).

2.º Dirigida al público juvenil.

3.º Dirigida al público infantil.

4.º Patrimonio del euskera local.

5.º Dirigida al público en general.

d) Dedicación prevista al proyecto: número de personas que previsiblemente participarán en la ejecución del proyecto y su dedicación horaria estimada.

e) Porcentaje de autofinanciación: cálculo porcentual que refleje la suma de todos los ingresos previstos (salvo los procedentes de las subvenciones públicas previstas para el proyecto y la cantidad solicitada en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zenbatekoa kontuan izan gabe) sarrera osoen arabera erakusten duena.

f) Adierazi behar da ea behartuta dagoen BEZaren aitorpena egitera.

g) Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 2. artikulua aintzat harturik, entitateak urtean aurreikusten dituen sarrerak, guztira, adierazi beharko ditu.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak beharrezko datuen egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat

presente convocatoria), en relación con los ingresos totales.

f) Si está obligada a realizar la declaración de IVA.

g) En cumplimiento del artículo 2 la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, deberán indicarse los ingresos totales anuales previstos por la entidad.

Base 7. *Documentación verificable.*

El Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las interesadas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los datos referidos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. oinarria. *Eskabidea zuzendu eta hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan entitate interesdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

9. oinarria. *Dirulaguntza emateko araubidea.*

Dirulaguntza hauek norgehiagoka eta hainbanaketa erabiliko dituen sistema misto baten bidez emango dira; hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 10. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Dirulaguntzak 85 puntutik 100 puntu bitartean lortu dituzten proiektuei adjudikatuko zaizkie, norgehiagoka araubidearen bidez, dagokion

Servicio de Euskera podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Euskera podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. *Régimen de concesión.*

La concesión de las presentes subvenciones se realizará mediante un sistema mixto de concurrencia competitiva y prorrateo, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 10. Se propondrá la adjudicación de las subvenciones siguiendo el sistema de concurrencia competitiva a aquellos proyectos que hayan obtenido

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurrekontuko partidan izendatutako diru-kopurua muga dela.

Era berean, eta 10. oinarriaren 5. zenbakiarekin bat etorrita, geratzen den kreditu erabilgarriaren hainbanatzea ezarriko da epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideen artean. Hainbanaketa da puntuazio-tarte honetan dirulaguntzak emateko prozedura egokiena; izan ere, aukera ematen du proiektu gehiagori laguntza emateko, eta hala deialdiaren aplikazio-eremua zabaltzen da.

Prozedura honek salbuespen-izaera du norgehiagoka araubide arruntaren aldean, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.1 artikuluan du lege-babesa; izan ere, honela dio artikulu horrek: oinarri-arauetan aurreikusita badago, organo eskudunak dirulaguntzetarako gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du dirulaguntzaren pertsona onuradunen artean.

10. oinarria. *Dirulaguntzak emateko irizpideak.*

1. Dirulaguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta haien zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

a) Jarduera mota, honako lehentasun-hurrenke honen arabera (eman ahal den kopuru osoaren 35 puntu gehienez):

1) Berezia (HAKOBA, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak nahiz Bizkaiko

entre 85 y 100 puntos, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

Asimismo, y de conformidad con la base 10, apartado 5, se introduce el prorrateo del crédito disponible restante entre las solicitudes que hubieran obtenido una puntuación comprendida entre la mínima establecida por el tribunal calificador y 84 puntos, ambos incluidos. El prorrateo se considera el procedimiento de concesión más adecuado en este tramo de puntuación, en tanto que permite otorgar subvención a un mayor número de proyectos, aumentando así el alcance de la convocatoria.

Este último procedimiento de concesión tiene un carácter excepcional respecto del régimen ordinario de la concurrencia competitiva, y encuentra amparo legal en el artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, que a estos efectos dispone que, también con carácter excepcional, siempre que así se prevea en las bases reguladoras, el órgano competente procederá al prorrateo, entre las personas beneficiarias de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

Base 10. *Criterios de concesión.*

1. Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, el tribunal calificador tendrá en cuenta los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, se establecen como sigue:

a) Tipo de actividad en virtud del siguiente orden de prelación (se valorará hasta 35 puntos del total a conceder):

1.º Específica (acciones y proyectos señalados como prioritarios por la Comisión

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Euskara Bizia batzordeak iradokitako lehentasunezko ekintzak eta egitasmoak: kirola eta euskara; hizkuntza-ohiturak euskarara aldatzeko jarduerak edo ariketa sozialak; etorkinei zuzenduak; lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektuak; desgaitasuna duten pertsonekin egindakoak...).

de Coordinación de las Administraciones Públicas, HAKOBA, y/o por la Comisión Euskara Bizia de Bizkaia: euskera y deporte, actuaciones o ejercicios sociales para el cambio de hábitos lingüísticos en favor del euskera, actividades dirigidas a la población inmigrante, proyectos dirigidos al incremento del uso del euskera en el mundo laboral, los relacionados con personas con discapacidad...).

2) Gazteentzako jarduera.

2.º Dirigida al público juvenil.

3) Umeentzako jarduera.

3.º Dirigida al público infantil.

4) Tokian tokiko euskararen ondarea.

4.º Patrimonio del euskera local.

5) Edonorentzako jarduera.

5.º Dirigida al público en general.

Entitate batek foru-dekretu honen babesean diruz lagundutako proiektu edo jardueraren bat egiten badu eta proiektu edo jarduera horrek Bizkaiko Lurralde Historikoaren lurralde-eremua gainditzen badu, Bizkaian eginiko proiektu edo jarduerarako aurrekontua eta langileak soilik baloratuko dira.

Si una entidad desarrolla un proyecto o actividad subvencionable bajo el presente decreto foral de ámbito territorial superior al del Territorio Histórico de Bizkaia, solo se valorarán el presupuesto y las personas empleadas de la parte del proyecto desarrollado en Bizkaia.

b) Proiektuak egokitzea AROAk, Eusko Jaurlaritzaren Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoak, ezarritako ardatz estrategikoetara, erronketara, lan-ildoetara eta ekimenetara (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).

b) Adecuación de los proyectos a los ejes estratégicos, retos, líneas de trabajo e iniciativas establecidos por AROA, Marco estratégico del Gobierno Vasco para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes (se valorará hasta 15 puntos del total a conceder).

c) Entitatearen helburuak egokitzea AROAk, Eusko Jaurlaritzaren Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoak, ezarritako ardatz estrategikoetara, erronketara, lan-ildoetara eta ekimenetara (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).

c) Adecuación de los objetivos de la entidad a los ejes estratégicos, retos, líneas de trabajo e iniciativas establecidos por AROA, Marco estratégico del Gobierno Vasco para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes (se valorará hasta 15 puntos del total a conceder).

d) Jardueran parte har dezaketenen kopurua (eman ahal den kopuru osoaren 15 puntu gehienez).

d) Número potencial de personas receptoras de la actividad (se valorará hasta 15 puntos del total a conceder).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

e) Proiektuak euskararen ondarea gordetzeari egiten dion ekarpena (10 puntu).

f) Proiektuan lanpostu kualifikatuetan edo erantzukizuna dakartenetan jardungo duten emakumeen kopurua (eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez).

g) Entitate eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan edo jarduketetan eginiko ibilbidea (eman ahal den kopuru osoaren 5 puntu gehienez).

2. Proiektuak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko puntuazioa ezarriko du eta hortik gorako puntuazioa lortzen duten proiektuek dirulaguntza jasoko dute. Epaimahaiak 300 eurotik beherako ekarpena ezarri dien proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasotzeko eskubiderik izango.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri (gutxienez, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez eskuragarri dagoen ereduaren xehetasunekin aurkeztu behar da aurrekontua). Aldez aurretik, behar izanez gero, zenbatu ezin diren gaindikinen arazketa egingo da, eta kendu egingo dira deialdiaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak.

4. Proiektu bakoitzari adjudikatutako dirulaguntzak ez du gaindituko aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 40. Lor daitekeen gehieneko puntuazioari (100 puntu) aplikatuko zaio ehuneko hori, 10. oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera; ondoren, epaimahaiak ezarritako irizpidearen arabera, linealki edo progresioan beherantz joango da, 85 puntura heldu arte. Proiektu batek ezin izango du inoiz ere laurogeita hamabost mila (95.000) eurotik gorako dirulaguntza jaso.

5. Epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa eta 84 puntu (biak barne) arteko emaitza lortzen duten eskabideak: eskabideon eskura dagoen

e) Aportación del proyecto a la conservación del patrimonio del euskera (10 puntos).

f) El número de mujeres que ocuparán puestos cualificados o de responsabilidad en la ejecución del proyecto (se valorará hasta 5 puntos del total a conceder).

g) La trayectoria de la entidad solicitante en el desarrollo de las políticas o actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres (se valorará hasta 5 puntos del total a conceder).

2. Una vez analizados los proyectos, el tribunal calificador establecerá una puntuación mínima, a partir de la cual los proyectos serán objeto de subvención. No tendrán derecho a la misma aquellos proyectos a los que el tribunal asigne una previsible aportación inferior a 300 €.

3. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto de la actividad, que se presentará como mínimo con el grado de detalle que aparece en el modelo específico disponible para su cumplimentación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, una vez realizada, en su caso, la depuración de los excesos no computables, y de gastos no directamente relacionados con el objeto de la convocatoria.

4. La subvención adjudicada a cada proyecto no superará el 40 % del presupuesto depurado del proyecto presentado. Este porcentaje únicamente se aplicará a la máxima puntuación posible (100 puntos) en aplicación de los criterios fijados en esta base 10, disminuyendo linealmente o en progresión decreciente según el criterio fijado por el tribunal hasta la puntuación de 85 puntos. Ningún proyecto podrá nunca obtener una subvención superior a noventa y cinco mil (95.000) euros.

5. Las solicitudes que obtengan una puntuación comprendida entre la mínima establecida por el tribunal calificador y 84 puntos, ambos incluidos, obtendrán la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kredituaren hainbanatzea eginda ateratzen den zenbatekoa jasoko dute, lortu duten puntuazioaren arabera, ezarritako ehunekoak eta gehieneko muga kontuan hartuta. Baliagarri dagoen kreditua 85 puntu gutxienez lortzen dituzten eskabideei dirulaguntzak eman ondoren geratzen dena izango da.

cantidad resultante del prorrateo del crédito disponible entre dichas solicitudes, atendiendo a la puntuación obtenida, y teniendo siempre en cuenta los porcentajes y límites establecidos en cada caso. El crédito disponible será el que resulte una vez otorgadas las subvenciones a aquellas solicitudes que hubieran obtenido una puntuación mínima de 85.

6. Behin eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezarrita, hurrenkeran aurretik dauden entitate hautagaien gaindikinak beste entitate onuradunen mesederako izan ahalko dira.

6. Una vez establecido el orden de prelación entre las distintas solicitudes, los excesos de las entidades candidatas precedentes podrán redundar en el resto de programas o actividades.

11. oinarria. *Aholkularitza.*

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko; horretarako, foru-webgune hau erabili ahal da:

www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara

Base 11. *Asesoramiento.*

El Servicio de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral, a cuyos efectos está disponible un acceso a través de la siguiente web foral:

www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara

12. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Base 12. *Tribunal calificador.*

1. Para el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante orden foral. A tal efecto, se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Epaimahai kalifikatzaileak, dirulaguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

13. oinarria. *Ebazpena*.

Base 13. *Resolución*.

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzaileren batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin ebazpena emanda.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Euskera comprobará que las personas solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna persona incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabete izango da, gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de seis (6) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes. La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, a propuesta de la resolución del tribunal Calificador.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 0IWS-ZPSU-E66T-UXS7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honen interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Egoitza elektronikoan bertaratzearen bidez ere helaraziko zaie interesdunei.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakeela foru-agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

14. oinarria. *Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.*

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo entitate publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Bizkaiko Foru Aldundiak berak esleitutakoak salbu.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo entitate publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin

misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas interesadas mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. También se comunicará mediante comparecencia en sede.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

